

Ikas-egoerak

Bihurtu dezagun biral bakea

Haur Hezkuntza

Parte hartu nahi duzu
zuk ere bakea zaintzeko
zeregin honetan?





Bihurtu dezagun biral bakea © SED GGKE 2026k garatutako hezkuntza-proposamena da. Material honek baimen hau du: Creative Commons CC BY-NC-ND 4.0

Egileak: Ana Martín Bautista, Cristian Gómez Martín, Florencia Agustina Bulacio Vaira, Izaskun Adot Larumbe eta Tania Días Basurdo, SED GGKEko HGHE batzordeko kideak, Ana Fernández Moya proiektuen koordinatzailearen eta Beatriz de la Banda Velázquez batzorde iraunkorreko kidearen laguntzarekin.

Berrikuspen teknikoa: Nuria Salvatierra Villada, Jesús Rojas Aguilar, Rocío Rodríguez Rueda, Esther Lechado Hurtado, Coral de la Camara García, Teresa Rodríguez Pérez de Ayala, Isabel de la Cruz Sierra, Agnola Soler Ortiz, Inmaculada LLacer Moreno Auriolés, M^a del Carmen Millán Herrera, Sevillako Maristen ikastetxeko irakasle taldeko kideak.

Diseinuak: Zootropo Studio.

Maketazioa: Victoria Daima, SED GGKEko komunikazio-arduraduna.

1. saioa: “Kutsa dezagun bakea”



Solen **bideoaren** bidez, ikasleak ohartuko dira bakea eguneroko ekintzekin “kutsa” daitekeela: irribarreen bidez, lagunduz eta hitz politen bidez.

Helburuak

- Norberaren eta besteen emozioak ezagutzea.
- Ongizatea sortzen duten ekintzak identifikatzea.
- Zaintzeko eta laguntzeko jokabideak izatea.

Jarduerak

Hasierako batzarra

Saioa gidatzeko galderak:

- **Zer gauzak sentiarazten gaituzte ondo ikasgelan? Eta jolastokian?**
- **Zer egin dezakezu lagun bat pozik egon dadin?**
- **Zer gauzak egiten dute ikasgela leku zoriontsua izatea?**

“Bakearen” ideia gustura egotearekin lotzen da.

2. Kanpainaren bideoa ikustea

- Sol aurkeztuko diegu, bake-agentea.
- Bideoa ekintzak identifikatzeko eskatuko diegu: entzutea, laguntzea, oihurik ez egitea.

3. “Bakearen birusa” dinamika

Haur batek bake-ekintza bat egingo du: besarkada bat; irribarre bat; eskua ematea; jasotzen laguntzea; eskerrak ematea; sentitzen dut esatea; “ondo zaude?” galdetzea; “nirekin jolastu nahi duzu?” galdetzea; jostailu bat partekatzea... Horrela, beste bat kutsatuko du, eta bake-kate bat eraikiko dugu.

4. Sormen-lantegia: “Gure ikasgelan bakea kutsatzen dugu” bake-katea

Irakasleak taldeari azalduko dio bakea eguneroko ekintza txikiekin eraikitzen dela. Kate bat katebegi asko elkartzean osatzen den bezala, pertsona bakoitzaren ekintzei esker eraikitzen da bakea eskolan.

Ikasle bakoitzari paperezko zerrenda bat emango diogu, katearen maila edo katebegi bat egiteko. Zerrenda bakoitzean, bake-ekintza batekin lotutako piktograma bat agertuko da, adibidez:

- Behar duenari laguntzen diot.
- Nire materialak edo jostailuak partekatzen ditut.
- Norbaitek hitz egiten duenean entzun egiten diot.
- Hitz atseginak esaten ditut.
- Barkamena eskatzen dut oker nagoenean.
- Eskerrak ematen ditut.
- Bakarrik dagoena jolastera gonbidatzen dut.
- Nire ikaskideak zaintzen ditut.

Aukerakoa: haur bakoitzak bere katebegia edo maila margotzea eta apaintzea.



Katebegi guztiak amaituta daudenean, irakasleak lotu egingo ditu, Bakearen Kate handi bat osatzeko eta ikasgelan ikusgai jartzeko. "Zer gertatuko litzateke katebegi bat kenduko bagenu?"

Irakasleak katebegi bat kenduko du, katea hautsi egiten dela erakusteko.

"Besteei laguntzea, entzutea, besteekin partekatzea edo besteak errespetatzea ahazten zaigunean, hautsi egiten da bakearen katea. Pertsona guztiok gara garrantzitsuak kateari sendo eusteko".

Azkenik, ikasgelan ikusgai dagoen leku bat bilatuko dugu denon artean, aste osoan zehar katea han jartzeko.

5. Itxiera



"Bakea kutsatu egiten da. Keinu bakoitzak bere balioa du. **Pertsona batek bakea zaintzen duenean, ikasgela osoari hobeto sentitzen laguntzen dio.**"

Baliabideak


- Kanpainako bideoa.
- Eranskina, kateak egiteko zerrendekin eta ekintzen piktogramekin.
- Margoak, koloreak, errotuladoreak.
- Zinta itsaskorra.



Eranskina, kateak egiteko zerrendekin eta ekintzen piktogramekin



Eranskina, kateak egiteko zerrendekin eta ekintzen piktogramekin



2. saioa: “Bake-agentea naiz”

Helburuak

- Enpatia garatzea
- Kalte egiten duten jokabideak eta zaintzen dutenak ezagutzea.

Jarduerak

1. Bideoa gogora ekartzea: zer egiten zuen bake-agente batek?

2. Rol-jokoa: eszena txikiak

- Norbaitek ez du jolasten uzten
- Norbait triste dago
- Norbait oihuka ari da

“Zer egingo luke bake-agente batek?”

3. Zer gertatzen zaio?

Irakasleak zenbait egoera planteatuko ditu:

- Zuriñe negarrez ari da.
- Aitor bakarrik dago.
- Alaia haserre dago.
- Unai liburuak erori zaizkio.

Galderak: nola sentitzen da? Zer egin dezakezu zuk?

Ekintzen bidez erantzungo dute, ez hitzekin.



4. Mini erronka: bake-agentea misioa

Astero, ikasle batek **bake-agentearen** rola hartuko du, hala, ikasturtean zehar ikasle guztiek erantzukizun horretan parte hartzeko eta txandakatzeko aukera izan dezaten. Bake-agenteen misioa ikasgelan giro positiboa eta abegitsua izaten lagunduko duten ekintzak egitea eta sustatzea da. Hona hemen ekintza horietako batzuk:

- Laguntza behar duen ikaskide bati laguntzea.
- Triste edo kezkatuta dagoen norbait kontsolatzea.
- Materialak edo jolasak partekatzea.
- Bakarrik dagoena parte hartzera gonbidatzea.
- Hitz atseginak eta errespetuzkoak erabiltzea.
- Gatazka txikiak elkarriketaren bidez konpontzea.

Astea amaitzean, honako galdera hau egingo diegu: nork bete du zegokion misioa?



3. saioa: “Gure ikastetxea toki baketsua da”

Helburuak

- Bizikidetzarazak errazak eraikitzea.
- Taldeko kide sentitzea.
- Zaintza kolektiboa sustatzea.

Jarduerak

1. Batzarra

Gure ikasgela nolakoa izatea nahi dugu?

Ikasgelan nola tratatzea nahiko zenuke?

Zer gauzek laguntzen digute lasai eta gustura egoten?

Zer gustatzen zaigu gertatzea?

Guztion artean, ikasgela leku baketsua izatea lortu dezakegu.

2. Ideia-jasa

Piktogramak edo irudiak erabiltzea:

- Ez egin oihu
- Lagundu
- Entzun
- Partekatu



Ikasleek zaintzeko egokiak diren eta kaltegarriak diren jokabideak aukeratu eta adieraziko dituzte. Euren ustez jokabide zailena zein den zehaztu behar dute. Jokabide horiek Bake Arauen horma-irudia egiteko balioko dute. Eskoletan, bizikidetza-arauak egon ohi dira, eta atal hau lantzeko erabil daitezke.

3. Guztion artean Bake Arauak eraikitzen

- Aukeratu 3-5 arau positibo.
- Marrazkien, piktogramen edo hitz errazen bidez irudikatuko ditugu.
 - Elkarri laguntzen diogu
 - Elkarri entzuten diogu
 - Oihu egin gabe hitz egiten dugu
- Hatz-markekin, marrazkiekin eta gometsekin apainduko dugu.
- Ikasleen sinadura sinbolikoa: hatzen aztarna jar dezakete, edo izena idatzi.
- Ikasgelako leku ikusgarri batean jarriko dugu.

4. Beste ikasgela batzuei bisita

Beste ikasgela batzuetara joango dira bisitan, eta arau bat azalduko dute, edo zaintzeko eta ikasgela leku baketsu bihurtzeko zer egiten duten adieraziko dute.

Baliabideak

- Kartoi mehea, paper jarraitua.
- Hatz-pintura.
- Gometsak.
- Gelako arauen piktogramak.
- Errotuladoreak.




Piktogramen erreferentziak

Lagundu



Entzun beste pertsonari



Ez egin oihu, baxu hitz egin



Partekatu



Eskatu barkamena



Altxatu eskua parte hartzeko



Eskerrak eman



Piktogramen erreferentziak

Bakeak egin



Garbitu eskuak



Gorde jostailuak bere lekuan



Itxaron zure txanda



Gelako emaitzak partekatu nahi dituzu?

Bidaliezaguzu materiala (argazkia, bideoak, jardueraren laburpena) helbide honetara: comunicacion@sedongd.org.

*SED GGKEtik, gure kanaletan argitaratuko ditugu zuek bidalitako lanak, **bakea biral egiteko eta kanpainaren eragina ikusarazteko.***

Ebaluatu materiala!

Bidaliezaguzu zure iruzkina **inprimaki** honen bidez.

Kanpainaren eragina ebaluatzeko eta etorkizuneko ekintzetarako hobetzeko aukerak identifikatzeko eta baloratzeko soilik tratatuko ditu datuak SED GGKEak.

